

## **Andoain Bat agenda bateratua aurkeztu da Andoainen**

### **Maiatzean jarri da martxan herriko agenda bateratua, Andoainen antolatzen diren ekitaldi guztiak barne izango dituen programa.**

Duela bi urte hasi ziren herriko beharren azterketa egiten, bertatik sortu zen kultur mahaia, eta eragile ezberdinen parte hartzearekin eta udaleko ideia tekniko-politikoetatik identifikatu da agenda bateratu baten beharra. Mugimendu anitzeko herria dugu Andoain eta ez dago ekintza guztiak bat hartzen dituen sarerik.

Agenda bateratua Andoain herrian egiten diren ekitaldi guztiak bilduko dituen agenda izango da. Bide honetan, Andoain Bat baliabidea sortu dugu, dimentsio zabaleko tresna. Andoain Bat-ek, agenda eta berrien atalak ditu, baina, etorkizunean beste zerbitzu batzuk eskaini ditzake.

Laburbilduz gaur, Andoaingo agenda bateratua, hilabetero herrian antolatuko diren ekintzak ikusteko plataforma izango da. Fase ezberdinak izango ditu, prozesuan dago eta herrian sare bat sortzea ez ezik, antolatzen diren jardueren irisgarritasuna erraztea du helburu.

Agenda honek hiru dimentsio izango ditu:

- Web-orria. Andoainbat.eus izenean Andoainen antolatzen diren urteko ekitaldiak ikusteko aukera emango duen baliabide digitala.
- Aplikazioa. AndoainBat app-a, etxetik edo kaletik, herriko agenda, berriak edota bestelako edukiak izango dituen balibadie digitala.
- Eskuorria. Hilabetero Andoaingo eraikin publikoetan eskuragarri egongo den programa fisikoa. Ondorengoetan aurkitu daiteke: Ataria, Urigain, Ambrosia Olabide, Gazte Lokala, Arrate Pilotalekua, Bastero Kulturgunea, Andoaingo Liburutegia, Allurralde Kiroldetgia eta Ludoteka.

EMUN kooperatibak, Arkaitz Barriola diseinatzaileak, Zitu enpresak, Andoaingo Udalak eta Andoaingo eragileak hartu dute parte prozesu honetan.

Andoaingo Udalak Andoain Bat aplikazioa deskargatzera animatzen ditu herritarrak. Ekitaldiak gozatzeko eta sare hau indartzeko aukera paregabea eskaintzen du baliabide honek.

Andoain, 2026ko maiatzaren 5ean.

## Agenda bateratua:

Udaleko eta herriko ekintzen **topagunea**.

Andoaingo Udalak **"ANDOAIN BAT"** kaleratuko du, herrian antolatzen diren jarduerak bilduko dituen **agenda bateratua**. Proiektuak hiru dimentsio izango ditu: aplikazioa, webgunea eta eskuorria.

- **Mugikorrerako app-a**

Ekitaldi guztien agenda eta gehiago. **Eskaneatu QR kodea** aplikazioa deskargatzeko.



Android



iOS

- **Webgunea**

Kontsultatu guztia **andoainbat.eus** webgunean, beti eguneratuta.

- **Eskuorria**

Hilabeteko **programa paperean**. Herriko gune hauetan eskuragarri egongo da: Ataria, Anbrosia Olabide, Urigain, Arrate, Bastero Kulturgunea, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde.

